ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2023ko abuztuaren 14a, astelehena • 95 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Zuiako Udalaren Osoko Bilkurak, 2023ko apirilaren 20an egindako ohiko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Gorbeialdeko Parke Mikologikoaren barne diren Zuiako Udalaren OPMetan aprobetxatze mikologikoa arautzen duen ordenantza

Ordenantza hau jendaurrean jarri zen hogeita hamar egun balioduneko epean, 2023ko maiatzaren 8an arabako aldizkari ofizialean argitaratutako iragarki baten bidez. Aldi horretan, idatzizko alegazio bat aurkeztu zen.

Zuiako Udalaren Osoko Bilkurak, 2023ko uztailaren 13an egindako ohiko bilkuran, Gorbeialdeko Parke Mikologikoaren barne diren Zuiako Udalaren OPMetan aprobetxatze mikologikoa arautzen duen ordenantzaren hasierako onespena jendaurrean egon zen bitartean aurkeztutako alegazioaren ebazpena erabaki zuen, eta ordenantzaren behin betiko onarpena.

Behin betiko onespenaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitako moduan.

Murgian, 2023ko uztailaren 14an

Alkate-lehendakaria
UNAI GUTIÉRREZ URKIZA

GORBEIALDEKO PARKE MIKOLOGIKOAREN BARNE DIREN ZUIAKO UDALAREN OPMETAN APROBETXATZE MIKOLOGIKOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Aldatzen ari da pixkanaka gaur egungo gizarteak naturari buruz duen ikuspegia, gero eta indar handiagoz sentitzen delarik baserri-munduarekiko erakargarritasuna, aisialdirako eta beronekin identifikatzeko bitarteko gisa.

Gaur egungo naturaren, oro har, eta bereziki, baserri-eremuaren kontzeptu eta sentimendu horren ildotik, ordenantza honek landa-garapeneko proiektuen filosofian eta espirituan hartzen du parte, helburu nagusi hauek bere eginik:

1. Gure herriak indartzea, hainbat alderditan, hala nola ondarearen eta kulturaren kontserbazioan, eta turismo-eskaintza garatzea (baserri-ostatua, mendi-ibilaldiak eta bestelako kirolak mendian, fruituak biltzea, perretxikoak –turismo mikologikoa–, landareak eta loreak, etab.).

2. Ukitutako populazioa babestea eta defendatzea, azken emaitzen hartzaile eta onuradun baitira, eta beren jabetzak sortzen dituzten produktuen jabe gisa dituzten eskubideak zainduko badira.

Arautze horrek bereziki komenigarria eta, areago, beharrezkoa dirudi, gure mendien egungo egoera kontuan hartuz gero, ibilgailu motordunak kontrolik gabe mota guztietako baso-bideetatik ibiltzea edo perretxikoak bereizi gabe eta masiboki biltzea bezalako jardueren mende egoteko arriskuan baitaude. Horrela jarraituz gero, oso urte gutxiren buruan kalte konponezinak eragin litezke edo konponbide oso garestiak eragin litzakete gure ondare estimatuan.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Ordenantza honen filosofia eta espiritua da geure udalerrietan hainbat faktore sustatzea: ostatua, ondarearen kontserbazioa, kultura, kirola eta turismo mikologikoarekin lotutako baliabideak, besteak beste. Helburu horrekin berarekin sortu da Gorbeialdeko Parke Mikologikoaren barruti bakarra, Parke Mikologiko bakar hori osatzen duten administrazioen lankidetza bilatzen duena, gure mendietako baliabide naturalen aprobetxamendua sustatu ahal izateko, baliabide horiek elkarrekin kudeatuz.

Mikologiari lotutako jarduerek garapen ekonomikoa eta soziala bultza dezaten, jarduerok sustatu behar dute baliabideen erabilera arduratsua, bai eta jarduera elkartuei laguntza eman ere, aldi berean tokiko kultura-nortasunari eutsiz.

Udalek eta administrazio batzarrek emandako lurrek Gorbeialdeko Kuadrillako Parke Mikologikoa osatzen dute, baso-ekosistemak babesteko eta lehengoratzeko eta ekosistema horietan mundu mikologikoak duen garrantzia transmititzeko baterako estrategia gisa.

Printzipio horiek garatzeko, onddo, landare, lore eta basa-fruituen aprobetxamenduen antolamendua arautzen duen urriaren 14ko 89/2008 Foru-Dekretua onartu zen. Dekretu honetan zehazten dira perretxikoak, basa-fruituak, landareak eta loreak biltzeko bete beharreko baldintza orokorrak, jarduerak natura-ingurunean eragiten dituen nahi gabeko ondorioak mugatzeko helburu nagusia hartuta.

Zehazki, urriaren 14ko 89/2008 Foru-Dekretuaren 4. artikuluak ezartzen duenez, erakunde jabeek udal-ordenantzen bidez arautu ahal izango dute perretxiko, basa-fruitu, landare eta loreen bilketa, zein bere udalerriaren ezaugarri bereziak kontuan hartuta eta, betiere, foru-dekretu honetan ezarritako irizpideekin bat etorriz.

Beraz, azken urteotan perretxiko, fruitu eta bestelakoen bilketak izan duen masifikazioa dela eta, eta Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru-Arauaren 51.1 artikuluak dioenez, "Landare fanerogamo eta kriptogamoen fruituen irabazi-asmorik gabeko aprobetxamendua askea izango da, aprobetxamendu hori beren-beregi gorde edo mugatu duten jabeen baso lurretan izan ezik eta mendien arloan eskumena daukan Arabako Foru Aldundiaren Sailak ezartzen dituen muga eta baldintzen kalterik gabe", eta onddoen, landareen, loreen eta basa-fruituen aprobetxamenduen antolamendua arautzen duen urriaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 89/2008 Foru Dekretuak egindako garapena kontuan hartuta, lurren jabeak eskumena du ordenantza hau emateko aipatutako arautegiaren arabera, perretxiko aprobetxamendu hori behar bezala eta modu ordenatuan egin dadin arautzera bideratua, ekosistemaren oreka edo espezien iraunkortasuna kaltetu gabe.

Eskubide hauetatik eta gure mendietako baliabide naturalak babesteko helburuarekin, sortzen da ordenantza hau.

I. TITULUA. ATAL OROKORRA

1. artikulua. Oinarriak

Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 106. artikuluan aitortutako ahalmenak eta mendien administraziorako Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 4. eta 5. artikuluek ezartzen dituzten eskumenak eta eginkizunak baliatuz, perretxikoak, landareak, basa-lore eta fruituen aprobetxamendua arautzeko aipatutako foru arauaren 51. eta 52. artikuluetan eta urriaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 89/2008 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat etorrita, Zuiako Udalak aprobetxamendu mikologikoa arautuko du bere jabetzapeko mendi publikoetan.

Era berean, otsailaren 28ko 6/2005 Foru-Araua, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta aplikatu beharreko gainerako arauak betez, Gorbeialdeko Parke Mikologikoko onddoen aprobetxamenduagatiko tasa ezarri eta arautzen da.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

2. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua

1. Ordenantza honen xedea da aprobetxamendu mikológikoa arautzea, erakunde honen jabetzapekoak diren eta hitzarmen bidez, Gorbeialdeko Parke Mikologikoaren barruan integratutako mendi publikoetan; nolanahi ere, indarrean dagoen legeriarekin bat etorrita, beste administrazio publiko batzuei dagozkien eskumenak nahitaez bete beharko direlarik, bilketa-jarduera honek baliabide mikologikoaren gainean eta bere habitataren gainean lituzken ondorio kaltegarriak ahal denik eta gehien murriz daitezen.

2. Ordenantza honetan xedatutakoa udal-kontzeju honen jabetzako OPMen baso-eremu guztiei aplikatuko zaie, I. Eranskinean zerrendatuta daudenak.

3. Parque Micologikoa osatzen duten OPMk behar bezala seinaleztatuta egon beharko dute urriaren 14ko 89/2008 Foru-Dekretuaren 4.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

4. Tuber generoko boilurrak biltzeko, arautzen duen berariazko arautegia bete beharko da, eta, beraz, ez zaizkio ordenantza honetako xedapenak aplikatuko.

5. Basoko landare, lore eta fruituak biltzeko, urriaren 14ko 89/2008 Foru Dekretuan ezarritakoa hartuko da kontuan, eta, beraz, ez zaizkio ordenantza honetako xedapenak aplikatuko.

3. artikulua. Definizioak

Ordenantza honen, eta bertatik eratorritako arautegi eta akordioen ondorioetarako, honako definizio hauek hartuko ditugu aintzat:

a) Perretxikoa: esporak ekoizteko eta barreiatzeko helburuarekin garatzen den onddo baten zati ugaltzailea edo gorputz emankorra.

b) Boilurra: tuberkulu-forma duen masa haragitsua, Tuber generoko onddoek sortua.

c) Baimena: Administrazio publiko jabearen egintza, bilketa-eskubidea gauzatzeko aukera ematen duena, interes orokorraren eta, zehazkiago, oihaneko ekosistemaren orekaren eta espezieen iraunkortasunaren baldintzapean.

d) Bilketa-egutegia: perretxikoak biltzeko egun baliodunen eta, esklusioz, egun baliogabeen zerrenda.

e) Aprobetxamendua: basa-fruituak, landareak, loreak eta perretxikoak eskuz biltzea.

f) OPM: onura publikoko mendiak.

II. TITULUA. APROBETXAMENDUEN BALDINTZAK

4. artikulua. Perretxikoak OPMetan biltzea

1. Onura publikoko mendietako perretxiko aprobetxamenduak, nolanahi ere, onddo, landare, lore eta basa-fruituen aprobetxamenduen antolamendua arautzen duen Diputatuen Kontseiluaren urriaren 14ko 89/2008 Foru-Dekretuan jasotakoa errespetatuz egingo dira eta, baliabide natural berriztagarria dela kontuan hartuta, aprobetxamenduen arrazionaltasuna eta kontserbazio egokia bateratuz, ekosistemen orekari eta iraunkortasunari bide emanik.

2. Perretxiko aprobetxamendua mendiaren aprobetxamendutzat hartuko da, Mendiei buruzko Foru Arauaren 36. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta ordenantza honetan ezarritakoarekin bat etorriz egin ahal izango da, ez beste edozein eratara.

3. Mendiei buruzko 11/2007 Foru Arauaren 36. artikuluan xedatutakoaren arabera, ordenantza honetan araututako aprobetxamendu guztiak Aprobetxamenduen Urteko Planean sartuko dira, baldintza tekniko eta ekonomikoekin, eta bildutakoaren ehuneko 15 aipatutako foru arauak araututako hobekuntza-funtsera bideratuko da.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

5. artikulua. naturagune babestuetako aprobetxamenduak

OPMen zati bat parke naturaleko eremuan dagoelarik, eta, beraz, naturagune babestua izanik, ordenantza honetan xedatutakoaz gain, bertako baliabide naturalak antolatzeko planetan eta erabilera eta kudeaketarako plan zuzendarietan gai honen inguruan jasotako berariazko xedapenek arautuko dute aprobetxamendu mikologikoa.

Kontuan hartu beharko dira, bereziki, Gorbeiako Parke Naturalaren Arabako isurialdean marrualdiaren sektorean erabilerak eta jarduerak mugatzeko foru-aginduan urtero ezarritako erregulazioak, kontuan hartuta marrualdi-sektorea naturagune babestuaren barruko lursailetatik harago iristen dela jakinda.

Era berean, parke naturalaren barruan, organo eskudunaren baimena beharko da, sukaldaritza-interesik gabeko perretxiko eta onddoen bilketa, bilduma zein beste edozein helburutarako, eta debekatuta dago *Narcissus* generoko edozein motatako erraboilak edo loreak biltzea.

III. TITULUA. BAIMENAK

6. artikulua. Baimenak

1. Perretxikoak biltzeko, azken buruan mendiaren jabe den erakundeak emandako baimena eduki beharko da, baliabide hori egunero erabiltzen duten pertsonen kopurua kontrolatzeko.

2. Baimenen kudeaketa Gorbeialdeko Kuadrillak edo erakunde jabeak eginkizun hori eskuordetu dion beste erakunde batek egingo du, parke mikologikoa sortzeko hitzarmenak ezartzen duenaren arabera.

3. Baimenak erakunde kudeatzailearen mende edo adierazitako establezimendu laguntzaileetan emango dira.

4. Baimenaren titularrak aprobetxamendu-eremuaren funtzionamendu-arauak beteko ez balitu, baimenak baliozkotasuna galduko du.

5. Ordenantza honetan aipatzen diren baimen guztiak izendunak, pertsonalak eta besterenezinak izango dira.

6. Ordenantza honetan araututako espezieetako aleren bat daraman edonork izan beharko du dagokion baimena.

Baimena bilketa osoan eraman beharko da, norbera identifikatzea ahalbidetzen duen edozein egiaztagirirekin batera, eskatzerakoan erakutsi beharko duena. Halaber, baimena erakutsi beharko da parke mikologikoaren zaintza-zerbitzua egiteko, kasuan kasu, kontrata litezkeen zaintzaile edo zaindarien aurrean.

Ulertuko da edozein biltzailek eskuan edo ibilgailuan OPMetan zehar ibiltzeko oihan-pistetan eramaten edo eramaten dituen perretxiko guztiak mendi publiko horretan bildu direla.

7. Baimenak eskaera-ordena zorrotzean emango dira, eta horien kopurua edo bilketa-eremuak mugatuko dira, hala gomendatzen duten justifikatutako zirkunstantziak badaude.

8. Baimen horiek dagokion tasa ordaindu beharko dute, ordenantza honetan ezartzen den erregulazioa zein den.

9. Baimenak egunekoak, astekoak, denboraldikoak edo beste edozein motatakoak izan daitezke, eta denboraldi bakoitzaren hasieran ezarriko ditu erakunde horrek parte hartzen duen parke mikologikoaren jarraipen batzordeak, erakundearen perspektiben arabera.

10. Gorbeialdeko Parke Mikologikoak bildutako zenbatekoa berrinbertitu egingo da onura publikoko mendien kontserbazioan eta garbiketan, parkearen kudeaketa-gastuetan, ordenantza honetan xedatutakoaren kontrol eta zaintzan eta hobekuntzen ehuneko 15ean, indarrean dagoen foru arauan ezarritakoarekin bat etorrita.

IV. TITULUA. ONURADUNAK

7. artikulua. Onuradunak

Honako hauek izango dute ordenantza honetan araututako aprobetxamendurako eskubidea:

a) Baimena eskuratzen duten pertsonak.

b) Azterketa mikologikorako eta irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakundeak.

V. TITULUA. ZERGA-KUOTA

8. artikulua

1. Aprobetxamendu mikologikoagatiko tasa berezia sortzen da, ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

2. Zergapeko egitatea da perretxikoak biltzea kontsumitzeko edo merkaturatzeko, ordenantza honen xede diren mendi publikoetan.

3. Tasa, zazpigarren artikuluko a) atalean aipatzen diren pertsonei aplikatuko zaie honako tarifa hauen arabera:

— Eguneko baimena; 10,00 euro ordaindu behar dituelarik.

— Asteko baimena; 15,00 euro ordaindu behar dituelarik.

— Denboraldiko baimena; 50,00 euro ordaindu behar dituelarik.

4. Zazpigarren artikuluko b) atalean aipatzen diren pertsonek parke mikologikoaren jarraipen-batzordeak emandako baimen berezia jaso beharko dute.

5. Kasuan kasuko baimenak eskatu eta eskuratzerakoan kobratuko da tasa.

6. Tasa honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, aprobetxamendu mikologikoarako baimenak eskuratuko dituzten pertsonak.

VI. TITULUA. BABES-NEURRIAK

9. artikulua. Biltzeko egun baliodunak eta ordutegia

1. Perretxikoak edozein egunetan bildu ahal izango dira, egunsentia baino ordubete geroago hasi eta ilunabarra iritsi arte. Hala ere, Gorbeialdeko Kuadrillak, parkearen kudeatzaile gisa, jarraipen-batzordeak eta Zuiako udalak bilketa hori debekatu ahal izango dute, ehiza-jarduerarekin batera ezin daitekeelako edo eguraldi txarraren pronostikoa duten egun eta orduetan. Era berean, bilketa debekatuta egongo da Arabako Foru Aldundiak hala ezartzen duenean.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, Gorbeialdeko Kuadrillak, urtero, Parke Mikologikoa sortu eta kudeatzeko hitzarmenean ezarritakoaren arabera, bilketa-egutegi bat onartu ahal izango du, baliabidea babesteko. Egutegi horretan zehaztuko dira perretxikoak biltzeko egun baliodunak. Aldaketak ezarri ahal izango dira espezieen edo eremuen arabera.

10. artikulua. Debekatutako praktikak

1. Oro har, bai lokalizazio-fasean bai perretxikoak biltzeko egintzan, debekatuta dago lurzorua iraultzea, azaleko landare-lurraren geruza eta estaldura nahastuz eta birrinduz, dela eskuz, dela oinekin, edo orbela zein deskonposatzen legokeen edozein gai organikoez osatutako estaldura suntsituko lukeen edozein tresna edo lanabes erabiliz. Berariazko erregulaziorik ez duten onddo hipogeoak (lur azpian hazten direnak) biltzen direnean, lurra lehen bezala geratu beharko da, hots, onddoa ateratzeko egiten diren zuloak, aurretik erauzitako lur berarekin estalita.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

11. artikulua. Erauzketa-mugak, espezie bilgarriak eta gutxieneko tamainak

1. Erauzketaren gehieneko muga izango da eguneko eta pertsonako bi kilogramo perretxiko.

Muga horiez gain, errespetatu beharko da ordenantzaren II. eranskinean espezie bakoitzerako ezarritako gehienekoa.

Azterketa mikologikoa egiteko helburua duten eta irabazi-asmorik ez duten elkarte eta erakundeek baimen berezia eskatu beharko dute espezieak aztertzeko edo biltzeko. Baimen horrek, gehienez ere, 3 unitate adierazgarri oso aprobetxatzeko baimena emango die. Nolanahi ere, barietatearen araberako pisu-kantitateak, erregulazioaren mende daudenak, mugatu egingo dira aprobetxamenduaren mende dauden espezieen taulan.

2. Helburu zientifikorik gabeko espezie mikologikoen bilketa "Bil daitezkeen espezieak" izeneko II. Eranskinean sartutako espezieetara eta kasuan kasuk: gutxieneko neurrietara mugatzen da:

A. 2 cm, espezie oso txikiak.

B. 4 cm, espezie txikiak.

C. 6 cm, tamaina ertaineko espezieetan.

D. 10 cm, tamaina handia.

3. Debekatuta dago perretxiko iberikoen espezieen zerrenda gorrian (III. eranskina) dauden espezieen aleak biltzea.

12. artikulua. Tresnen erabilera

1. Ezin da eskuare, kako, igitai, aitzur, aitzurtxo, aliketa edo antzeko beste edozein tresna erabili perretxikorik bilatu eta hartzeko, ez eta honelakorik eraman ere, nahiz eta erabili ez, edozein tamainatakoak izanik ere, baimen zientifikorik ez bada.

Boilur-aihotzak edo antzekoak, baimen zientifikorik bada, erabili ahal izango dira soilik onddo hipogeoak biltzeko, berariazko erregulazio espezifikoak eragn ezean.

2. Perretxikoak biltzeko, aiztoa, labana edo antzekoa baino ez da erabiliko, baimen zientifikoren bat ez bada.

13. artikulua. Biltzeko arauak eta moduak

1. Ohiko heldutasun-neurrira iritsi diren perretxikoak jasoko dira eta, nolanahi ere, errespetatu egingo dira ordenantza honetako 10.2 artikuluan ezarritako gutxieneko neurriak, bertan utziko direlarik, narriatu gabe, pasatuta, hautsita edo ukituta leudekeen aleak, bai eta biltzeko arrazoirik gabekoak ere.

2. Bildu nahi den espeziea identifikatzeko zalantzarik balego, oin osoko perretxiko bat hartu ahal izango da eta, bildu nahi den espeziekoa bada, bere lekura itzuliko da, betiere xaflak (edo poroak) beherantz dituela.

3. Bilketa egiterakoan, beti utzi beharko da mikelioa bere lekuan. Aleak oinarritik moztuta edo osorik aterata egin ahal izango da, bildutako espeziearen arabera (Amanita, Boletus, Lepiota, etab.).

4. Perretxikoen esporak sakabanatzea erraztuko bada, bildutako perretxikoak zume, lasto, kanabera edo antzeko saskietan garraiatuko dira, beren egituragatik esporak hedatzea ahalbidetzen dutenak, eta berariaz debekatuta egongo dira plastikozko poltsak, ohiko motxilak edo antzekoak.

14. artikulua. Señalización

1. Erabiltzaileek eremu geografiko mugatuak edo debekatuak ezagut ditzaten, bai onura publikoko mendietan, bai lursail pribatuetan, neurri eta ezaugarri egokiko kartelekin seinaleztatu beharko dira. Kartel horiek lursailera sartzeko bideetan eta mugetan jarriko dira, erraz ikusteko moduan.

2. Errespetatu egingo dira administrazio honek, Gorbeialdeko Kuadrillak zein Arabako Foru Aldundiak ezarritako mugak edo hesiak, bai eta ezar daitezkeen seinaleak ere; fisikoki ekidin beharko da sarbide debekatua eta behar den publizitatea emango zaio neurri horri.

3. Kartelek "Gorbeialdeko Parke Mikologikoa, produktu naturalen bilketa arautua. Debekatuta dago baimenik gabe biltzea" adieraziko dute, eta ordenantza honetako 14.1 artikuluan ezarritakoaren arabera instalatuko dira.

4. Erakunde honek edo Gorbeialdeko Kuadrillak, aldi baterako, bilketa debekatu ahal izango dute. Debeku horren iragartzeko, kartelak jarri beharko dira perretxikoak biltzea debekatuta dagoela adierazteko.

5. Erabiltzaile guzti-guztiek kontserbatu beharko dute tokian toki mugatutako eremua inguratzen duten hesien eta seinaleak.

VII. TITULUA. MUGAK

15. artikulua. Mugak, ibilgailu motordunen joan-etorriak eta, oro har, debekuak

1. Zazpigarren artikuluan aipatzen diren pertsonek, ahal den neurrian, horretarako egokitutako eremuetan erabilgarri dauden aparkalekuak erabili beharko dituzte, eta ezingo dituzte erabili 734. OPMtik igarotzen diren pistak eta bideak.

2. Parke naturalaren edo OPMren barruan egiten diren jarduerak behaz bezala koordinatzeko, eta kontuan hartuta bilketa mikologikoa batzuena bat datozela ehiza-aldiarekin, gomendagarria izango da erabat biltzaile guztiak txaleko islatzaileekin joatea.

Ildo horretan, ehizan egon daitekeen arriskua kontuan hartuta, erabiltzaile guztiek informazioa jaso eta natura-inguruneareN erabilera publikoari buruzko arauak errespetatu behar dituzte, bai eta baimendutako ehiza-jardueren seinaleztapena ere, ehiztariek ehiza-legeria zorroztasunez errespetatu behar duten bezala.

3. Debekatuta dago objektuak eta hondakinak baimendutako lekuetatik eta herriguneko edukiontzietatik kanpo botatzea edo bertan behera uztea, bai eta horiek erretzea ere.

4. Debekatuta dago jabari publiko hidraulikoa degradatu edo kutsa dezaketen isurketa likidoak edo solidoak egitea.

5. Debekatuta dago abeltzaintzako eta basoko espezieen lasaitasuna eragotz dezaketen zaratak, argi-distirak edo bestelako energia-formak sortzea.

16. artikulua. Kaudimen-neurriak

1. Aurreko artikuluan xedatutakoa gorabehera, Gorbeialdeko Kuadrillak eta OPMen jabe den administrazioak, zein bere eskumen-eremuaren barruan, kasuan kasuko errekurtsoa kontserbatzeko eta babesteko behar diren kautelazko neurriak erabaki ahal izango ditu, arrazoiak emanda.

2. Erakunde jabeak beretzat gordetzen du aprobetxamenduaren xede diren espezieen zerrenda berrikusteko eta osatzeko eskubidea, beharrezkotzat iritziko balio.

VIII. TITULUA. ZEHAPEN-ARAUBIDEA

17. artikulua. Zehapen-araubidea

1. Ordenantza honetan xedatutakoaren aurka egiten diren arau-hausteei Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren VII. tituluan aurreikusitako zehapen-araubidea aplikatuko zaie; Arabako Foru Aldundia izango delarik zehapen-espedienteak izapidetu eta ebazteko erakunde eskuduna.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

2. Isun-zehapenari honako zehapen osagarri hauek erantsi ahal izango zaizkio:

a) Baimena baliogabetzea.

b) Lortutako baso-produktuak eta, hala badagokio, arau-haustea egiteko erabilitako tresnak eta bitartekoak konfiskatzea.

18. artikulua. Aplikazio-araubidea

1. Mendi-Zerbitzuko basozainek beren eginkizunak betez eta foru-aldundiaren eta toki-erakundeen arteko lankidetzaren esparruan egindako ikuskapen eta salaketa-aktek froga-balioa izango dute, toki-erakundeek onartutako ordenantzak dokumentu publiko gisa betetzen direla bermatzen duen egiaztapena eta kontrola burutzeko, beraietan jasotako egitateei dagokienez, agintaritzaren agente izateagatik.

2. Parke mikologikoko zaintzaileek egindako ikuskapen- eta salaketa-aktak Arabako Foru Aldundira bidaltzen badira mendiei buruzko foru-araudian tipifikatuta egon daitekeen eta ordenantza hori betetzen ez duen ekintza edo ez-egite baten berri emateko, foru-organo eskudunari dagokion zehapen-prozedura hasteko eskaera arrazoitua egingo zaio. Instrukzio-fasean agintaritzaren agente baten aurrean berretsi behar da zaintzalearen salaketa, arauek froga-balioa lortzeko eskatzen dituzten prozedurazko formalitate eta betekizun egoki guztiekin.

3. Sancio prozedura horietan interesdunzat hartuko da parke mikologikoaren organo kudeatzailea.

4. Arriskuan dauden basafauna eta basaflorako espezieen EAEko katalogoan katalogatutako landareak bildu edo suntsituko balira, Euskal Autonomia Erkidegoaren natura-ondarea kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legean xedatutakoa beteko da.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Gorbeialdeko Kuadrillak lankidetza-hitzarmena sinatu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean ordenantza hau, Gorbeialdeko Parke Mikologikoaren kudeaketa eskuordetzan emateko.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Arabako Foru Aldundiak ordenantza honetako 11.1 artikuluan ezarritako gehieneko muga gainditzen duten erauzketa-kopuruak baimentzen baditu, baimendutako erauzketaren gehieneko muga automatikoki berdinduko da Arabako Foru Aldundiak ezarritakoarekin.

Honako hau legozkiokeen ondorioetarako jakinarazten da.

I. ERANSKINA

Zuiako titulartasuneko eta ordenantza honen xede diren mendi publikoak osatzen dituzten katastro-partzelen eta azaleren zerrenda

UDALERRIA MUNICIPIO	POLIGONOA POLIGONO	LURSAILA PARCELA	AZPILURSAILA SUBPARCELA	PARAJEA PARAJE	GAINAZALA SUPERFICIE	PARTEHARTZE TANTO POR CIENTO PARTICIPACIÓN	LETNIF	IFZ NIF	TITULARRA TITULAR
Zuia								P0107200H	Zuiako Udala

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

II. ERANSKINA

Aprobetxa ahal diren espezieen zerrendak

ZIENTZI DEITURA NOMBRE CIENTÍFICO	EUSKARA	GAZTELANIA CASTELLANO	KG GEHIENEZ LÍMITE DE KG	GUTXIENEKO DIAMETROA DIÁMETRO MÍNIMO
Agaricus arvensis	Elurbola	Bola de nieve	2 kg	6 cm
Agaricus campestris	Barnegorri	Champiñón	2 kg	6 cm
Agrocybe cylindracea	Makal ziza	Seta de chopo	1 kg	4 cm
Amanita caesarea	Gorringoa, Kuletoa	Cesárea	1 kg	10 cm
Amanita rubescens	Galdakao lanperna, Ardotsua	Amanita rojiza	2 kg	10 cm
Boletus aereus	Onddo beltza	Hongo Negro	2 kg	10 cm
Boletus aestivalis	Udako onddoa	Boleto Reticulado	2 kg	10 cm
Boletus edulis	Onddo zuria	Hongo Calabaza	2 kg	10 cm
Boletus pinophillus	Onddo kaskabeltza	Boleto de Pino	2 kg	10 cm
Calocybe gambosa	Udaberriko ziza, Susa	Seta de Orduña	2 kg	6 cm
Cantharellus amethysteus	Saltsa-perretxikoa, Zizahoria	Rebozuelo	2 kg	4 cm
Cantharellus cibarius	Saltsa-perretxikoa, Zizahoria	Rebozuelo	2 kg	4 cm
Cantharellus pallens	Saltsa-perretxikoa, Zizahoria	Rebozuelo	2 kg	4 cm
Clitocybe geotropa	San Martin ziza, Urril ziza	Platera	2 kg	10 cm
Clitopilus prunulus	Errotaria	Molinera	1 kg	4 cm
Coprinus comatus	Ur beltz galparduna	Barbuda	2 kg	2 cm
Craterellus cornucopioides	Saltsa perretxiko beltza	Trompeta de los muertos	2 kg	4 cm
Craterellus lutescens	Saltsa perretxiko horia	Rebozuelo anaranjado	2 kg	2 cm
Craterellus tubaeformis	Saltsa perretxiko horiluna	Rebozuelo atrompetado	2 kg	2 cm
Hydnum repandum	Tripakia, Negu ziza	Lengua de vaca	2 kg	6 cm
Hygrophorus marzuolus	Martxoko ezkoa	Seta de marzo	1 kg	6 cm
Hygrophorus russula	Ezko gibelgorria	Higróforo escarlata	2 kg	6 cm
Imleria badia	Onddo arrea	Boleto bayo	2 kg	6 cm
Lactarius deliciosus	Esnegorria	Níscalo	2 kg	6 cm
Lactarius semisanguifluus	Esnegorrikorra	Níscalo	2 kg	6 cm
Leccinum quercinum	Onddo laranja	Boleto anaranjado	2 kg	10 cm
Lepista nuda	Ziza hankahurdina	Pie azul	2 kg	6 cm
Lepista personata	Ziza hankamorea	Pie violeta	1 kg	6 cm
Macrolepiota procera	Galanperna jangarria	Apagador	2 kg	10 cm
Marasmius oreades	Marasmio jangarria	Senderuela	2 kg	2 cm
Morchella fluvialis	Karraspina	Colmenilla	1 kg	4 cm
Morchella rotunda	Karraspina	Colmenilla	1 kg	6 cm
Neoboletus erythropus	Onddo hankagorria	Boleto de pie rojo	2 kg	10 cm
Pleurotus ostreatus	Belarri landua	Seta de ostra	2 kg	6 cm
Pleurotus eryngii	Karduziza	Seta de cardo	1 kg	4 cm
Russula cyanoxantha	Urretxa	Carbonera	2 kg	6 cm
Russula vesca	Gibelarrosa goiztiarra	Rúsula comestible	1 kg	6 cm
Russula virescens	Gibelurdina	Gorra verde, Seta de cura	2 kg	6 cm
Suillus luteus	Pinudi onddo likina	Boleto viscoso anillado	2 kg	6 cm
Tricholoma terreum	Ziza arrea	Negrilla, Ratón	2 kg.	4 cm

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

III. ERANSKINA

Babestutako espezieen zerrenda gorria

Zerrenda honetan jasotako espezimenak ez dira espezie bilgarritzat hartzen, Natura Kontserbatzeko Legeak babesten baititu.

— *Agaricus arvensis Schaeff.: Fr.*

— *Agaricus devoniensis P. D. Orton.*

— *Amanita singeri Bas.*

— *Amanita virosa (Fr.) Bertill.*

— *Amanita vittadinii (Moretti) Vitt.*

— *Aureoboletus gentilis (Quél.) Pouzar.*

— *Beenakia fricta Maas Geest.*

— *Boletopsis grisea (Peck) Bondartsev & Singer.*

— *Boletus fechtneri Velen.*

— *Boletus pulverulentus Opat.*

— *Boletus regius Krombh.*

— *Bovista paludosa Lév.*

— *Caloscypha fulgens (Pers.: Fr.) Boud.*

— *Cantharellus friesii Quél.*

— *Clathrus ruber Mich.: Pers.*

— *Clavaria argillacea Fr.: Fr.*

— *Clavaria fumosa Pers.: Fr.*

— *Clitocybe geotropa (DC. & Lam.) Quél.*

— *Coprinus martinii J. Favre.*

— *Cortinarius orellanus Fr.*

— *Cortinarius caperatus (Pers. : Fr.) P. Karst.*

— *Cortinarius praestans (Cordier) Gillet.*

— *Craterellus melanoxeros (Desm.) Pérez-De-Greg.*

— *Craterellus ianthinoxanthus (Maire) Pérez-De-Greg.*

— *Crinipellis sardoa Candusso.*

— *Entoloma bloxamii (Berk.) Sacc.*

— *Floccularia luteovirens (Alb. & Schwein: Fr.) Pouzar.*

— *Fomitopsis rosea (Alb. & Schwein.: Fr.) P. Karst.*

— *Galerina paludosa (Fr.) Kühner.*

— *Ganoderma pfeifferi Bres.*

— *Geastrum fornicatum (Huds.) Hook.*

— *Geoglossum atropurureum Batsch: Fr.*

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

— *Gomphidius glutinosus (Schaeff.: Fr.) Fr.*

— *Gomphidius roseus (Fr.: Fr.) Fr.*

— *Gomphus clavatus (Pers.: Fr.) Gray.*

— *Gyrodon lividus (Bull.: Fr.) Fr.*

— *Gyroporus cyanescens (Bull.: Fr.) Quél.*

— *Hericium erinaceus (Bull.: Fr.) Pers.*

— *Hydnellum peckii Banker.*

— *Hygrocybe calyptriformis (Berk. & Broome) Fayod.*

— *Hygrocybe conicoides (P. D. Orton) P. D. Orton& Watling.*

— *Hygrocybe spadicea (Scop.) P. Karst.*

— *Hygrophorus carneogriseus Malençon.*

— *Lactarius luteolus Peck.*

— *Laricifomes officinalis (Vill.: Fr.) Kotl. & Pouzar.*

— *Laurobasidium lauri (Geyl.) Jülich.*

— *Leucopaxillus rhodoleucus (Romell) Kühner.*

— *Melanophyllum haematospermum (Bull.: Fr.) Kreisel.*

— *Myriostoma coliforme (Dicks.: Fr.) Corda.*

— *Omphalina ericetorum (Bull.: Fr.) M. Lange.*

— *Peziza ammophila Dur. & Mont.*

— *Phaeolepiota aurea (Matt.: Fr.) Maire.*

— *Phylloporus pelletieri (Lév.) Quél.*

— *Piptoporus quercinus (Schrad.) P. Karst.*

— *Pluteus aurantiorugosus (Trog) Sacc.*

— *Podoscypha multizonata (Berk. & Broome) Pat.*

— *Polyporus squamosus Huds.: Fr.*

— *Porphyrellus porphyrosporus (Fr. & Hök) E. J. Gilbert.*

— *Ptychoverpa bohemica (Krombh.) Boud.*

— *Pulveroboletus lignicola (Kallenb.) E. A. Dick & Snell.*

— *Ramaria botrytis (Pers.: Fr.) Bourdot.*

— *Ramaria cedretorum (Maire) Malençon.*

— *Ramariopsis crocea (Pers.: Fr.) Corner.*

— *Russula virescens (Schaeff.) Fr.*

— *Sarcodon cyrneus Maas Geest.*

— *Sarcodon fuligineoviolaceus (Kalchbr.) Pat.*

— *Scutiger pes-caprae (Pers.: Fr.) Bondartsev & Singer.*

— *Sericeomyces subvolvatus (Malençon & Bertault) Bon.*

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

— *Squamanita cettoiana M. M. Moser.*

— *Strobilomyces strobilaceus (Scop.: Fr.) Berk.*

— *Suillus flavidus (Fr.: Fr.) Singer.*

— *Tricholoma colossus (Fr.) Quél.*

— *Tricholoma columbeta (Fr.) P. Kumm.*

— *Tricholoma roseoacerbum A. Riva.*

— *Verpa digitaliformis Pers. : Fr.*

— *Piptoporus quercinus (Schrad.) P. Karst.*

— *Pluteus aurantiorugosus (Trog) Sacc.*

— *Podoscypha multizonata (Berk. & Broome) Pat.*

— *Polyporus squamosus Huds. : Fr.*

— *Porphyrellus porphyrosporus (Fr. & Hök) E. J. Gilbert.*

— *Ptychoverpa bohemica (Krombh.) Boud.*

— *Pulveroboletus lignicola (Kallenb.) E. A. Dick & Snell.*

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2023.08.14 05:26:41 Z